


290. alea - 2023ko abendua
Debako herri aldizkaria

Zuhaitza W. deba euskara
elkartea

Berriketan



INIGO ARRIZABALAGA • Zaldizkoa

Pasioz eta trebeziaz, bizitza osoa zaldi gainean trostaka



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

f www.facebook.com/adatsileak
i @adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

janire & maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

BURU - ZURI Taberna

50 URTE

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan fragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

Argazkilaria

Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com
Tel: 685 703 843



AURKIBIDEA



BERRIKETAN 290

2023ko abendua

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta



8 KOLABORAZIOA
DIT Feminista: "Zaintza sistema publiko eta komunitario baten aldeko garrasia"



10 ELKARRIZKETA
Ane Itziar Bastida Lizasorekin solasean, bere lehen liburua hizpide hartuta



12 ALBISTEAK
Septariaren erakusketa urtarrila amaitu bitartean izango da turismo bulegoan



22 ALBISTEAK
Komunikazio arloan bailaratzearen aldeko "hautu estrategikoa" sinatu du Zuhatzak



25 URTEKARIA
2023. urteko albiste nagusien errepaso 'Berriketán' aldizkariko lerroburretan



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

Zuhatzak euskara
elkartea

Berriketán

ARGITARATZAILEA
Zuhatzak Euskara Elkartea
HELBIDEA
Ifar kalea, 12 behea. 20820 (Deba)
TELEFONOAK
943 19 13 83 / 632 04 33 22
HEDABIDEAREN E-MAILA
berriketán@zuhatzak.com
ELKARTEAREN E-MAILA
koordinatzailea@zuhatzak.com
ERREDAKZIOA
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas
KOORDINATZAILEA
Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA
Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA
Iñaki Elosua
MAKETAZIOA
Maku Oruezabal
TIRADA
1.400 ale
MAIZTASUNA
Hilabetekaria
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
LEGE GORDAILUA
SS/246/200
ISSN: 2171-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketán-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatzia berriketán@zuhatzak.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak

Gutxieneko pentsioak 1.080 eurora igotzeko eskaera

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan dadin eskaera egin dio Espainiako Gobernuari eta, aldi berean, hori gauzatu bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuei eskatu zaie osa ditzatela gutxieneko pentsioak lehen aipatutako 1.080 euroraino.

Eskari hau babestu dezan, Debako Udalari mozio bat aurkeztu zitzaion eta, azaroaren 29an egindako osoko bilkuran aztertu ondoren, ez zen onartu: aldeko botoak 6 (EH Bildu), kontrakoak 6 (EAJ-PNV) eta abstentzio bat (Orain Deba). Beraz, berdinketa egon zenez, alkatearen kalitatezko botoak erabakitzen du, eta ez zuen aurrera egin. Horren ordez, EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa onartu zen, baina bertan Jaurlaritzari ez zaio eskatzen pentsioak 1.080 euroraino osa ditzan.

Azken batean, pentsioak hobetu beharra onartzen da, baina, eskumen hori Madrilen esku dagoenez, Jaurlaritzaren eskuetara pasa dezatela eskatzera mugatzen da, Autonomia Estatutuak jasotzen duen bezala. Noski, guk ere bat egiten dugu eskari horrekin, baina hori gauzatu bitartean, uste dugu ezin direla egon hainbat eta hainbat pentsiodun miseriako pentsioekin edo pobrezia-aren mugan.

Uste dugu erakunde publiko baten betebeharrak nagusie-

tako bat dela ordezkatzeko duen jendartearen kohesioa lortzea, baina nola lortu hori gizartean gero eta arrakala handiagoak badaude? Ezin da gizarte kohesionatu bat lortu hainbeste jende bazterrean utzita. EAEn 167.710 herritarrek daukate gaur egun 1.080 euro baino gutxiagoko pentsioa. Eta genero arrakala hainbeste aipatzen den honetan, horietatik %90 inguru emakumeak dira. Norbaitek esango du ez dutela kotizatu, eta noski, kasu askotan hala da, baina ez lanik ez dutelako egin. Gehienek umeak hazi dituzte, familiaz arduratu dira, adinekoak zaindu dituzte, eta askotan beste lan batzuk egin dituzte, eskailerak garbitu, besteen umeak zaindu... baina kotizatu gabeko lanak dira. Eta alargun geratu ondoren senarraren soldata edo pentsioaren %60arekin geratu dira. Nork ez du ezagutzen egoera horretan dagoen emakumeren bat? Kontua da, bizitza osoa etengabe lanean pasa eta orain miseriako pentsioak dituztela.

Pentsioak 1.080 eurora arte osatzeak zer kostu izango lukeen kalkulatu dugu eta hala jakinarazi diogu Jaurlaritzari. Suposatuko liokeena guztiz jasangarria da; borondate politikoa besterik ez da behar hori aurrera eramateko.

Deba eta Itziarko pentsiodunak

Errege kabalgarako laguntza eskaera

Errege kabalgata antolatzen duen taldeak herritarren laguntza behar du hainbat antolaketa, dekorazio eta mantentze lanetarako. Besteak beste, photocall-aren ingurua garbi mantentzeko, eta kabalgataren egunean ibilbidean antolakuntzan jarduteko, edo apainketa eta desmuntatze lanetan aritzeko laguntza behar dugu.

Herriko ekintzak bizirik mantendu daitezen, horietan parte hartzerantz animatzen zaituztegu.

Izena emateko, bidali mezua ondoko helbide

elektronikora: erregekabalgatadeba@gmail.com. Bertan, izen-abizenak eta kontaktu zenbakia adierazi.

Bestalde, 2024ko urtarrilaren 3an bileran parte hartzearekin batera, 2024ko urtarrilaren 3an bileran parte hartzearekin batera, 19:00etan, parte hartzaile guztiekin, pajeekin eta laguntzaileekin. Informazio guztia bertan partekatuko da.

Aurrez, mila esker.

Errege kabalgataren antolakuntza taldea





Etxegabetu nahi zaituzte?

Azken urteotan, etxegabetzeek gora egin dute. Oihartzun handiena duten etxegabetzeek gain, non epaile baten aginduz poliziak familia bat bortxaz kanporatzen duen ordaindu ezin duen etxe batetik, etxegabetzeek forma ezberdinak hartzen dituzte. Gero eta ohikoagoak dira, alokairu kontratu etete ezberdinak medio, pertsona edo familia bati etxebizitzara sarbidea ukatzea, etxegabetze ilegalak burutzea (Desokupa erako enpresek, poliziak berak,...), sarraila aldaketak, jabeek argia moztea bezalako presio mekanismoak erabiltzea eta abar.

Guretzat, doako eta kalitatezko etxebizitzara sarbidea guztioi bermatu beharreko oinarritzko bizi baliabidea da. Honek, ordea, etxebizitzaren jabetza eskusiboa irabazi ekonomikorako iturri gisa darabilten horien interesekin talka egiten du. Talka honen aurrean, instituzio publikoek irabazien logikarekin hausteko duten ezgaitasuna erakutsi dute berriz ere. Konponbiderik eman ezinik, sortzen diren ondorioen hala moduzko kudeaketa bat egiten

saiatzen dira, hala nola kalitate txarreko etxebizitzak merkaturatuz, irabaziak bermatzeko dirulaguntzak jarriz edota banketxei, hipotekei loturiko etxegabetze prozesuak aldi baterako geldotzearen truke, kontzesioak eginez.

Bien bitartean, bizi-baldintzen kaskartzeko eta garestitze garaiotan, geroz eta gehiago dira etxebizitzara sarbidea ukatua dutenak, baita euren etxebizitzatik kanporatuak izango direnak ere. Testuinguru honetan, Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistatik, etxegabetze guztiak baldintzarik gabe, behin betiko gelditu daitezela aldarrikatzen dugu. Guk bide horretan egingo dugu lan.

Etxegabetua izateko arriskuan bazaude, jarri gurekin harremanetan 671 19 59 24 telefono zenbakian edo *esindikatu.a.debabailara@gmail.com* helbide elektronikoan.

Deba Bailerako Etxebizitza Sindikatua

'Konponbiderako giltzak'

"Giltza. Sarraila. Zuloa. Atea. Zabaldur - Zarratu". Honela hasten da jendarte zabalaren atxikimendua lortu asmoz Sarek urrian kaleratutako *Konponbiderako giltzak* deituriko manifestua eta ondoren agertzen diren esaldiekin amaitzen da idatzia: "... Esandako guztiagatik, adierazi nahi dugu prest gaudela konponbiderako, elkarbizitzarako, biktima guztien minen errespeturako eta presoan etxerako biderako atea irekiko dituzten giltzak gure eskuetan hartzeko, lege arruntak dioten bidetik, hamarkadetan zehar aplikatzen ari zaizkien salbuespenak betiko baztertuz. Ahaleginak egingo ditugu ate hauek lehenbailehen ireki daitezen eta, horrela, herri hau osatzen dugunok elkarbizitza oinarri izango duen etorkizun bat eraiki dezagun".

Bat egin ezazu zuk ere aipatutako manifestuarekin, ondorengo atarian: *giltzak.sare.eus*.

Debako Udalak ere aho batez onartu zuen, azaroaren 29ko osoko bilkuran, Sarek aurkeztutako mozioaren lehen puntua. Bertan, atxikimendua adierazi zion elkarbizitzaren baitan aurrera egin ahal izateko manifestuari.

Bestalde, giza eskubideen defentsan, urteroko deialdiei eutsiz, ondoko hitzordu hauetan parte hartzera, *giltza hartzera*, gonbidatzen zaitugu: abenduaren 23an, 12:00etan, manifestazioa Martuteneko espetxetik; hilaren 24an, 19:30ean, elkartasun ekimena Debako Foruen Plazan, abenduaren 29an (azken ostirala), 19:30ean, mobilizazioa Foruen Plazan; urtarrilaren 13an, 17:00etan, manifestazioa Bilbon, La Casillatik (autobuserako izen-ematea Arkatza liburu-dendan).

Izan zaitetz *Giltza*.

Debako Sare

TaxiAlain Deba

LIZ-ZK.: 3

WiFi

636 135 008

www.taxideba.eus

alain@taxideba.eus

MAIEDER Eider Sampayo
horts klinika Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia
Periodontzia · Endodontzia
Estetika eta zuriketak
Protesiak · Odontopediatria
Azido hialuronikoa
Aho-aurpegi eta ATM alterazioak

Zarautz
Kale Nagusia 9-1
943 13 32 69
722 81 56 60
dental@maieder.com
www.maieder.com



1990eko hamarkada Bodegon Iñaxio

Askotariko herritarrak pasa ziren hain estimatua genuen Iñaxio tabernatik. Aristokratik, politikariak, bohemioak, artistak, idazleak, kirolariak, baserritarrak, turistak... eta, nola ez, izen handiko sukaldariak ere maiz izan ziren bertan, Iñaxio Odriozolaren eta haren emazte Joxepa Lasaren parrilla ezagunean prestatutako produktuak dastatzen. Argazkian, esate baterako, Juan Mari eta Elena Arzak aita-alaba sukaldariak agertzen dira, Iñaxiorekin meriendatzen. Bodegon Iñaxiok 2001. urtean itxi zituen ateak, 1950eko hamarkadaz geroztik irekita egon ondoren.

Alex Turrillas Aranzeta


Informatika
 Tresneria
 informatikoa

Elektronika
 Osagai
 elektronikoa

Informatika JLC Elektronika
 Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
 Faxa: 943 19 18 36
 Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com


atari
 INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com


ieraenea
 eskudena

"maila ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
 Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com


LAMARIANO
 Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
 943 19 12 52



MIRIAN ARRIZABALAGA

‘Hator, hator’, Olentzero eta oturuntzak

Badoaz egutegian aurrera abenduko egunak eta pentsatu dut agian kasu batzuetan lerro hauek berandu iritsiko direla, baina urte osorako balio dutela ohartu naiz gero. Erosketa eta kontsumo handiko garaian gaude; familia eta lagun bilkurak, opariak, oporraldia... iragarkiak eta promozioak aukeran, argi, kolore eta musikaz lagunduta. Berez, aurretik eraman gaituen kontsumoaren zurrunbiloa, abiadura azkartuta!

Ni ekoizlea naiz, baina baita kontsumitzailea ere, eta argi daukat herria bizirik egoteko denda txikiek, artisauek eta ekoizleek duten garrantzia. Zergatiak eman ditzaket, baina merkatarien elkarteek egindako lanaz baliatuko naiz horretarako eta spotak sarean bilatzera gonbidatzen zaituztet. 2022an Confecomerc-ek zabaldutako *Principios para recuperar los principios* kanpainak oinarritzko lau printzipio ekartzen dizkigu gogora, umore puntu batekin. Hurbilago etorrira, Aretxabaletako merkatarien gabonetako iragarkiaren zain egoten naiz urtero eta Oñatikoak ere ez dira alferrikakoak, bakoitzak bere herrira erraz ekar ditzakeen egoerekin.

Ezinezkoa dirudi guk hartzen ditugun neurriekin mundu mailan eragiteak, baina garrantzitsua da gastatzen dugun euro bakoitzak non bukatzen duen eta zer bultzatzen duen jakitea. Eta hori gure esku dago! Badago opari bereziak egiteko aukera: dendetan neurria egindako otarreak edo bestelakoak prestatzen dira garai hauetarako; elkar hartuta edo banaka, beren piezak eskaintzen dituzte artisauek; ekoizleak saskiak osatzen ibiltzen dira; harpidetzak eta hainbat proiektutarako babesa ere oparitu daitezke. Denak GERTUTASUNAK lagunduta!

"Ezinezkoa dirudi guk hartzen ditugun neurriekin mundu mailan eragiteak, baina garrantzitsua da gastatzen dugun euro bakoitzak non bukatzen duen eta zer bultzatzen duen jakitea"



ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFINAS Y EXPOSICIÓN:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Zaintza sistema publiko eta komunitario baten aldeko garrasia

DIT FEMINISTA

Azaroaren 30ean, Zaintza Greba Feminista Orokorrean, indar erakustaldia egin genuen gurean ere. Hasieran DIT Feminista bezala, eta gerora zabalagoa izango zen Greba Batzordearen izenean, greba eguna eta haren aurretiazko prestaketa lanak antolatu genituen. Kartelak itsatsiz, megafonoaren zarataz, irudi performance bidez (garbitzeko tresnak, zintzilikutako arropak edota erosketetako orgak herriko txoko desberdinetan jarritz), eta bidez grabatutako herritarrei egindako elkarrizketen bitartez, lan egin genuen debarrek eta itziartarrek grebaren berri izan zezaten.

Egunean bertan, goiz bildu ginen Debako Foruen Plaza hartzeko, espazioa pankartez eta kartekez betetzeko eta alde zuretzat egindako bideoa aurkezteko. Ondoren, zaintzaile atzerritarren eskubideak defendatzen dituen Merlin Medina abokatu elkarrizketatu genuen Kultur Elkartearen; solasaldia oso aberasgarria izan zen, batik bat kontuan hartuta bertan bildutako gehienak emakume zuri pribilegiatuak garena.

Ondoren, euriaz eta hotzaz babesteko, udaletxeko arkupeetan baba-jana egin genuen, zaintzaren bueltan hitza hartu genuen kafe tertulian, abesten aritu ginen eta herriko emakume zaintzaileen testigantzak ere entzun genituen. Sare polit bat sortu zen, eroso eta lan egiteko prest dagoena; polita litzateke honi jarraipen bat ematea.

Iluntzeko manifestazioan ehunka lagunek garrasi egin genuen zaintza sistema publikoak aldarrikatuz. Garrasi, ez dugulako onartzen zaintzarekin negoziatorik egitea. Garrasi, zaintza eskubideak kolektiboak izan behar duelako. Garrasi, greba egiteko aukerarik izan ez zuten zaintzaileengatik.

Zaintza sistema publiko eta komunitario baten alde, gora borroka feminista!



"Sare polit bat sortu zen, eroso eta lan egiteko prest dagoena; polita litzateke honi jarraipen bat ematea"



REXU ARAKISTAIN

Intelligentzia artifiziala

Gai honek kristoren jakin-mina sortzen dit. Irakurtzen eta irakurtzen hasi nintzen. Lehen ere bagenuen arren, orain ederra datorkigu. Adimen naturala existitzen al da gure artean? Gogoratzen dut bazela gizon jator bat gure herrian. Aurrerapen bat sumatzen zuenean, hark zera esan ohi zuen: "Alferrik ibiliko dira, ezingo dute jakin nik zer pentsatzen dudan momentu honetan!", eta barre egiten zuen. Horretara iristen baldin badira, akabo nire kezka, sekretu eta amets goxoak. Gure aurrekoei aspaldi entzun izan nien esaten aurrerapenak oso onak direla, baina kontuz ibiltzeko, gertu-gertu daudela atzerapenak ere.

Duela denbora gutxi gertatu zitzaidan. Lau gurpileko tramankuluan etxera bidean nindoala txakur bat ikusi nuen "deskarga egiten". Jabea mugikorra belarrian jarrita zihoan, ez ikusiarena egiten eta, bere eginbeharra erraztu nahian, leihotik eskua atera eta jaso beharrekoa non zeukan seinalatu nion. Orduan, oso azkar, jasotakoa eskuekin hartu eta... (*plass!*) kotxearen atzeko ateko kristalean itsatsita utzi zidan (*kaka*)... Beste behin, leku berean, erdiko hatza atera zidan beste batek, begiratu egin niolako.

Hondartzan txakurrak sartzeko debekua jaso ondoren, hamazazpi kontatu nituen, denak pozik eta gustura, ama bat izan ezik, bere ume txikiaren zapatilak eta behatz tarreak "mondongoz beteta" zeudelako.

Nire jakin-mina asetu nahian, ikasketa eta titulazio askoko "listo" bati galderak egiten hasi nintzaion. Baina bueltan jaso nuen erantzuna oso motza eta xumea izan zen, sinestezina: lehengo lapikoko kafearen eta oraingo kapsulako kafearen arteko aldearekin konparatu zidan intelligentzia artifiziala. Datorrena datorrela, gure euskara sekula ez baztertzea litzateke nire gogo bakarra.


**"Gure aurrekoei
aspaldi entzun
izan nien esaten
aurrerapenak oso
onak direla, baina
kontuz ibiltzeko,
gertu-gertu daudela
atzerapenak ere"**



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

“Ipuineko pertsonaiak banan-banan hartu eta beste istorio batzuk sortzea da nire hurrengo erronka”

ANE ITZIAR BASTIDA LIZASO • Idazlea



Debarra da sortzez eta bihotzez, baina aspaldi honetan herritik kanpo bizi da Ane Itziar Bastida Lizaso (Deba, 1977). Bi hamarkada inguru Madrilen eman ostean, Gasteizen bizi da gaur egun, baina ahal duen guztietan jaioterrira etortzen da etxeoak eta lagunak ikustera. Debara egindako azken bisitetako batean izan dugu berarekin *Berriketan* aritzeko aukera, berriki aurkeztu duen *Hideane eta bere lagunak* liburua hizpide hartuta.

Ogibidez euskara irakaslea eta soroslea bada ere, Bastidak betidanik izan du idazteko eta istorioak kontatzeko zaletasuna. Debako Kontalarien taldeko kidea orain dela gutxi murgildu da literatur sorkuntzan eta lehen lana kaleratzeko orduan album ilustratu baten aldeko apustua egin du. Denonartean argialetxearen eskutik kaleratu du *Hideane eta bere lagunak* liburua, eta Apuleyo etxeak ere plazaratu du lana, gaztelaniaz. Bereziki haurrei zuzendutako istorioa dakar debarraren hitzekin eta Nadia Beltran de Lubiano ilustratzaile gasteiztarraren irudiekin osatutako argitalpenak.



Bastida, Debako aurkezpenean liburua sinatzen. DEBAKO KONTALARIAK

***Hideane eta bere lagunak* album ilustratuak aurten ikusi du argia. Irakurleek zer topatuko dute bertan?**

Liburuan *Hideane* izeneko neskatxa batek Debara egindako bidaia aurkituko dute eta, besteak beste, bere herriko arazo handiari irtenbidea emateko modua ere bai. **Dakigunez, istorioa Zaldibarko hondamendian oinarrituta dago, baina zer dago zehazki kontatzen duzunaren atzean?**

Kutsadura, kiratsa, zaborteziaren hondamendia, konfinamendua eta halako arazoak abiapuntutzat

harturik, bestelako mezuak elkarbanatu nahi izan ditut istorioan: gauza txikiei balio handiagoa ematea; betiko lagunak eta lagun berriak duten garrantzia nabarmentzea, eta haien laguntzarekin lor daitezkeen gauza harrigarriak ikusaraztea; bizikletaren erabilera bultzatzea; bakarrik bidaiatzera ausartzeak dakartzan onurez jabetzea...

Argitaratu duzun lehen liburua da honakoa. Zerk bultzatuta murgildu zara mundu literarioan?

Betidanik izan dut idazteko ohitura, baina *Hideane*



Idazle debarra, argitaratu berri duen liburua eskuetan hartuta.

eta bere lagunak izan da orain arte argitaratu dudan liburu bakarra. Madrilgo Euskal Etxean euskara eskolak ematen nizkion, online, Hide ikasle japoniarrari eta hark animatu ninduen pandemia garaian ipuina idaztera. Japon eta Euskal Herria elkartuz, elkarlanean jarraitu genuen eta, halaxe, gure izenak bat eginez sortu genuen protagonistaren izena ere: Hideane. Proiektuari ilustrazioak gehitzeko ideia gero etorri zen, baita Nafarroako lehiaketan parte hartzeko erronka ere. **Eta zergatik erabaki duzu liburua aurten argitaratzea, eta ez lehenago?**

Pandemia garaian lana idazten hasi nintzenez, zerbait kontatzeko eta hori munduarekin elkarbanatzeko beharra sentitu nuen. Ama izateko gogoia ere banuen, eta, hori errealitate bihurtzeko, Madril atzean utzi eta Euskal Herrira etorri nintzen. Iaz izan nuen Telmo semea eta, aurten, beste liburu txiki honi iritsi zaio argia ikusteko ueña.

Euskaraz zein gazteleraz plazaratu duzu lana, ezta? Pandemia garaian, Debako Kontalariok nik jatorriz euskaraz idatzitako ipuina eta beste zenbait lan PDF eta bideo formatuan kaleratu genituen. Emaizta nire

“Durangoko Azokan ere aurkeztu dugu lana. Txikitan hor egotea amesten nuen, euskal idazleen artean liburua sinatzen, azokako ekitaldietan parte hartzen”

ingurukoekin partekatu nuen, eta kopia bat Nadia Beltran de Lubiano ilustratzaileari ere bidali nion. Nadiak ilustrazioekin jantzi zuen istorioa eta, guztia ontzen amaitu genuenean, hainbat argitaletxetara bidali genuen. Denon artean argitaletxe nafarrak lana argitaratzeko interesa agertu zuen eta, hortaz, euskaraz kaleratzea adostu genuen. Istorioa penintsulako beste argitaletxe batzuetara bidaltzea ere erabaki nuen, tartean Apuleyo-ra, eta, haiek gaztelaniaz argitaratzea eskaini zidatenean, onartu egin nuen. Pozik nago nire uzta bihotzekoa dudan eta gehien maite dudan nire lehenengo hizkuntzan, euskaraz, eta bigarren hizkuntzan kaleratuta ikusteaz. Oraingoz bi hizkuntzako argitalpena izatera iritsi bada ere, espero dut etorkizunean beste hizkuntza batzuetara itzultzea; japonieraz kaleratuta ikusteak, esate baterako, ilusioa egingo lidake.

Duela gutxi hasi zara argitalpena aurkezten.

Azaroan egin nuen lehen aurkezpena, EITBko *Biba Zuek* saioan. Abenduaren 3an, aldiz, herrian aurkeztu nuen lana, Debako Kontalariak Euskararen Nazioarteko Egunerako prestatu zuten saio berezian, Hide nire lagun eta ikaslea alboan nuela. Jendez gainezka zegoen Ispiluen gelara bertaratu zirenek liburua sinatuta eramateko aukera izan zuten eta, egia esan, oso saio hunkigarria izan zen, bihotzean betirako gordeta gertatzen diren oroitzapen horietako bat. Durangoko Azokan ere aurkeztu dugu lana. Txikitan hor egotea amesten nuen, euskal idazleen artean liburua sinatzen, azokako ekitaldietan parte hartzen, bisitan etorritako lagunekin disfrutatzen... Oso gustura ibili gara bertan ere.

Etorkizunera begira beste proiekturen bat bai buruan?

Ipuineko pertsonaiak banan-banan hartu eta beste istorio batzuk sortzea da nire hurrengo erronka. Jada hasita nago lehenengoarekin: *Emili Txoria*. Baina hori bukatu baino lehen, *Hideane eta bere lagunak* liburua-ren edizioan izandako akats txiki batzuk zuzentzeko eskatu diot argitaletxeari, ale berriak liburu-dendetara, liburutegietara, eskoletara... bidali aurretik. Perfekzioa existitzen ez bada ere, posible den heinean hobetzen jarraitzea da helburua.

Septarien erakusketa urtarrila amaitu bitartean izango da turismo bulegoan



Udaleko eta Geoparkeko ordezkariak, ikerketaz arduratu den EHUko ikerlariarekin eta piezak dohaintzan eman dituztenekin, aurkezpenean.

Duela ehun milioi urte inguru itsas hondoan sortu ziren septariei buruzko xehetasunak ezagutzeko aukera izango dute urtarrilaren 31ra bitartean turismo bulegora hurbiltzen diren herritarrek. Lau ataletan banatuta, besteak beste, flysch beltza zer den, septariak zer diren eta nola sortzen diren azaltzen da *Septariak*. *Flysch beltzaren nodulu misterioitsuak* erakusketan; Debako Udalak eta Geoparkeak antolatu dute, elkarlanean, septariak kontserbatzeko eta haien balioa azpimarratzeko helburuz.

Erakusketan, munduko beste leku batzuetan (Madagaskarren, Marokon, Alemanian edo Frantzian) aurkitutako alerik bitxiak ikus daitezke, baita gertuagokoak ere (Nafarroakoak, Pirinioetakoak edo Bizkaikoak). Era berean, EHUko Geologia saileko Luis Miguel Agirrezabalak konkrezio horiei buruz egindako ikerketaren ondorio nagusiak biltzen dituen atala ere aurkituko du bisitariak.

Oraingoz, Debako septariekin eta truke programako piezekin osatutako bildumako alerik

ikusgarrienekin eta adierazgarrienekin osatutako lagin txiki bat besterik ez dago ikusgai, baina, epe ertainera, erakusketa finko bat sortzea da helburua; "ikerketatik hasi eta hezkuntza eta dibulgaziorako baliabide bilakatzea da asmoa, Geoparkearen eskaintza geoturistikoa iraunkorraren osagarri izan dadin".

Erakusketa egunero egoten da zabalik, honako ordutegian: astelehenetik igandera 10:00etatik 14:00etara, eta ostiral eta larunbatetan 16:00etatik 18:00etara.

Arteondo
Autobusak S.L.
arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak
Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



MAITANE ETXANIZ

Egokitu ala aldatu?

Erabakiak hartzea zaila egiten zait. Batzuetan, ezinegona sortzen didan egoera baten aurrean ez dakit nola jokatu. Agian arazoa nirea da, eta horrela bizitzen ikasi behar dut. Ala agian egoera onartezina da, eta egoera bera aldatzeko egin beharko nuke borroka. Zalantza hauek bizitzako hainbat esparrutan errepikatzen dira; lan munduan, bikote harremanetan... Zein konplexua den erantzun zuzena asmatzea.

Inguruan jasotzen ditugun mezu gehienek egokitzen ikasi behar dugula esaten digute. Familia eta lagun arteko elkarrizketetan, sare sozialetan eta ikasgeletan ere entzuten ditugu horrelako esaldiak: "gure emozioak kudeatzen ikasi behar dugu", "pentsamendu positiboa izan behar dugu", "zoriontsu izatea gure esku dago", "erresilientzia garatu behar genuke".

Baina gure osasun mentala arriskuan jartzen duen errealitate batera egokitzen ikasi behar al dugu? Bizi dugun egoera bat ez bada bizigarria, ez dugu kudeaketa emozionala behar; bai, aldiz, gure ezinegona zerk sortzen duen aztertze gaitasun kritikoa garatzea. Hori baita egoera aldatu ahal izateko lehen urratsa.

Horregatik iruditzen zaizkit garrantzitsuak hezkuntzan gizarte zientziak, historia, filosofia eta balio etikoak bezalako ikasgaiak; gure mundua eta ingurunea ulertzen laguntzen digutelako. Hausnarketarako prestatzen gaituzte. Eta, maiz hanka sartzen jarraitu arren, onargarriak eta onartezinak diren egoerak ezberdintzen ikasten badugu, gaitz erdi.

"Bizi dugun egoera bat ez bada bizigarria, ez dugu kudeaketa emozionala behar; bai, aldiz, gure ezinegona zerk sortzen duen aztertze gaitasun kritikoa garatzea"

**Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197**

*Frondaritzaren ondoren
Urte guztian zabalik*

**Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA**

**Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria
3000m²**

**Itziariko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)**

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

Mendatan banatu dituzte aurtengo literatur lehiaketari dagozkion sariak



Ikasleak, irakasleak eta Zuhatza Euskara Elkarteko ordezkariak batu ziren abenduaren 5ean ikastetxean egindako sari banaketa ekitaldian.

Ametz Carrillo, Alazne Txurruka, Igor Larrañaga, Itziar Arana eta Izaro Aulestiarte aritu dira aurtien epaile lanetan. Haien erabakiz, lehen zikloan (DBHko 1. eta 2. mailan) Nora Vega nagusitu da, *Amak kontatutakoak* izenburuko lanarekin; Lore Arrietak jaso du bigarren saria, *Larunbat hura* idazlanarekin; eta, azkenik, Ainhoa Gallardek lortu du aipamen berezia, *Amama* narrazioari esker. Bigarren zikloan (DBHko 3. eta 4. mailan), berriz, Irati Majoralek lortu du lehen saria, *Hitzez definitu ezin daitekeena* lanarekin; Laine Alberdientzat izan da bigarren saria, *Sagar ustela* idazlanari esker; eta aipamen berezia Maya Castillok eskuratu du, *Nor dago behar dudanean* izenburuko testuarekin.

Umorezko bi ikuskizunekin agurtuko du urtea KulturEkin



Umore puntu batekin amaituko da Debako Udalak eta Kultur Elkartek elkarlanean antolatutako KulturEkin egitasmoaren aurtengo programazioa. Bi ikuskizun izango dira aukeran urtea amaitu bitartean.

Inozente egunean, abenduaren 28an, Oskar Terol komiko donostiarrak izango da Kultur Elkartean, *Mundos para pelos* aurkezten. Bi emanaldi egingo ditu, gaztelaniaz (18:00etan eta 20:00etan). Bakarrizketa eta zuzeneko musika uztartzen dituen obra honetan, Terolek "pertsona guztiok ulertzen ez dugun mundu baten errealitatea" erakutsi nahi du. Zera dio saioaren sinopsiak: "Protagonistaren helburu bakarra egunaren bukaerara iristea da, besteen begiradak eta kritikak ahalik eta gehien gainditu ondoren,

eguneko edozein unetan bizitza hondatzeko ager daitekeen gure *ni lelo* hori ezkututzen saiatuz".

Hilaren 29an, aldiz, umorezko lau bakarrizketa laburrez osaturiko *Stand Up Gaua* izango da Kultur Elkartean (18:00etan izango da lehen saioa eta 20:00etan bigarrena). Beñat Iturbe, Esti Curiel, Asier Kortabarria eta Manex Astigarraga ariko dira agertokian, eta bakoitzak ordu-laurden inguruko bakarrizketa egingo du. *Stand up* komedia formatuan, umoristaren eta publikoaren arteko zuzeneko harremana bilatzen da, bien arteko elkarreragina sustatuz; hipokrisiaz, ohiturez, tradizioez, eguneroko bizitzako egoerez edo norbere buruaz barre egitea eta hausnartzea izan ohi da helburua.

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k
kutxabank

LK Home

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolkhome@gmail.com

Torrealday

**AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN**

ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA

ONDARROA - 94 685 29 75
ERMUA - 94 37 44 35
Eta beste herri batzuetan.
www.torrealday.es

Osa-Gonzalez eta Barruetabeña ahizpak nagusi pala txapelketan



Abenduaren 16an jokatuakotako finalekin erabakita geratu dira urriaren 8an bidea egiten hasi zen Nesken Binakako XI. Pala Txapelketaren irabazleak. Bigarren mailan, Edurne Osa zizurkildarra eta Amaia Gonzalez andoaindarra nagusitu ziren, eta, lehen mailan, Maite eta Iratxe Barruetabeña ahizpa mutrikuarrek jantzi zuten txapela.

Lau finalistei urtero egiten zaien agurra dantzatu ondoren, Osak eta Gonzalezek sei tantogatik irabazi zuten bigarren mailako finalarekin hasi zen pilota jaialdia; 22-16 nagusitu ziren Marilu Albizu eta Maddi Ciaran debarren aurkako lehian (Itziar Albizuren ordezkari lanetan aritu zen bigarrena). *Euskararen aldeko*

pilotakadaren ondoren jokatu zen lehen mailako finalaren garaipena, berriz, Barruetabeña ahizpa mutrikuarrentzat izan zen; 22-14 irabazi zieten Yoli Mateos eta Maria Badiola elgoibartarrei.

Maite Etxeberria sari berezia

Ekitaldia talde argazkia aterata eta bazkari batekin amaitu zen, baina, alde zurretik, sari banaketa eta bazkideen arteko zozketa ere egin zuten Aldats pilotalekuan.

Tartean, Maite Etxeberria sari berezia banatu zuten; Mari Seararentzat eta Onintza Caramanzarentzat izan da aurtengoa. Antolakuntzak "aho batez" hautatu ditu, "minbizia pasata, izan duten adorea-rengatik eta indarrarengatik, eta beti egon direlako laguntzeko prest".

San Silbestre lasterketa herrikoa antolatu dute abenduaren 31rako



Urtea korrikaldi herrikoi batekin agurtzeko proposamena dakar beste behin ere Deba Xtrem Kirol Taldeak. 12:00etan, Foruen Plazatik abiatuko da 14 urtetik gorakoei zuzendutako 5 kilometroko lasterketa nagusia, baina aurrez adinaren arabera antolatutako beste hiru proba ere egongo dira: 11:15ean, HH4-LH1 bitarteko haurren proba (200 metrokoa); 11:30ean, LH2-LH5 bitarteko gaztetxoaren proba (400 metrokoa); eta 11:45ean, LH5-DBH2 bitarteko gazteen lasterketa (kilometro batekoa).

Izena eman nahi dutenek turismo bulegorajobeharko dute. Distantzia motzeko probetarako izen-ematea doakoa da, baina lasterketa nagusian parte hartzeko 7 euro ordaindu behar dira; abenduaren 30a da horretarako azken eguna. Edonola ere, lasterketaren egunean bertan ere izango da dortsala lortzeko aukera (9 euroan).



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Podologia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

“Qatargo Al Shahania Stud talde ezagunarentzat lan egiten zuen entrenatzaile batek begiz jo ninduen”

IÑIGO ARRIZABALAGA CARRASCO • Zaldizkoa



Ganaduzaleen oinordeko izanik, betidanik izan ditu gustuko zezenak eta zaldiak Iñigo Arrizabalagak (Itziar, 1974). Duela 32 urte erosi zuen bere lehen zaldia eta, hasiera batean zezenketetan aguaziltxo gisa hasi bazen ere, gaur egun enduro modalitatean lehiatzen da. Munduko hainbat tokitan lasterketa ugari korritzeko aukera izan du, eta oraindik ere sasoiko sentitzen dela dio itziartarrak. "Gorputzak aguantatzen didan bitartean, zaldiekin lasterka egiten jarraituko dut".

Zaldien eta zaldizkoen erresistentzia, abilezia eta abiadura neurtzen dituen enduro diziplinan murgilduta dabil azken 22 urteotan Arrizabalaga. Parte hartzen duen lasterketa bakoitzean, kilometro asko egin behar izaten ditu mendian barrena eta, urteetako eskarmentuari esker, hainbat proba irabazteko aukera izan du. Arabiar Emireri Batuetako zenbait herrialdeetan sekulako ospea du enduroak, eta hango taldeen arreta bereganatzea ere lortu du itziartarrak. Bere ibilbideaz eta beste hainbat kontuz galdezka joan zaio *Berriketan*.

Hipika ez da oso ezaguna gutako askorentzat. Zerk eraman zintuen mundu honetan murgiltzera? Noiztik zabilta zaldi artean?

Betidanik izan dut zaldienganako zaletasuna. Hain zen handia nire afizioa, ezen 17 urterekin ekarri bainuen lehenengo zaldia. Garai hartan, Saka ganadutegian egiten nuen lan eta, hain zuzen, zezenketetan hasi nuen ibilbidea. 18 urte nituela, Debako zezenketetan debutatu nuen aguaziltxo gisa eta, gerora, inguruko

beste herri batzuetan ere aritu nintzen. Tartean, soldaduskara joatea ere egokitu zitzaidan eta, bueltan, zaldi-jardueretako titulazioa lortzeko bideari ekin nion.

Zein ikasketa egin zenituen zehazki?

Ekitazioko monitore ikastaroa egin nuen lehenengo eta, gero, zaldi-gida izateko ikastaroa. Inguruotan zaldi lasterketak egiten ere hasi ziren, eta haietan parte hartzen hasi nintzen; duela 26 bat urte izango zen hori. Handik lau bat urtera, gizon bat etorri zitzaidan mendiko lasterketetan zergatik ez nuen parte hartzen galdezka. Ez nuen modalitate hori ezagutzen, baina mendia eta lehia oso gustuko ditudanez, probatzea erabaki nuen. Zornotzan korritu nuen modalitate horretako nire lehenengo lasterketa.

Gaur egun enduro diziplinan aritzen zara. Distantzia luzeko erresistentzia probetarako zer ezaugarri fisiko eta psikologiko behar izaten dira?

Azkenean, ia egunero egiten ditudan hiruzpalau orduko entrenamendu saio luzeei eta zortzi-hamar ordu inguruko norgehiagoka gogorrei aurre egiteko, sasoiko egotea eta psikologikoki indartsu egotea komeni da. Animalia ondo ezagutzea ere oso garrantzitsua



Iñigo Arrizabalaga, 'Sas Ali' zaldiaren gainean. ERREDAKZIOA

da; azken finean, harekin zenbat eta ordu gehiago igaro, orduan eta hobeto ulertuko nau, eta alderantziz. **Aukeratzekotan, zaldia edo behorra, zuk zeuk zer nahiago duzu?**

Behorra edo zaldia izan, niri berdin zait. Hori bai, iraupen luzeko probetan hobekien moldatzen direnak arabiar arrazakoak dira. Abiadura probetan, aldiz, ingelesak dira azkarrenak. Baina gero eta azkarrago egiten denez korrika, zaldi arabiarrek ingelesekin nahasten hasi gara, angloarabiar arraza sortuz.

Lehiatzeko erabiltzen dituzun guztiak zureak al dira?

Momentu honetan etxean ditudan zaldi eta behor guztiak nireak dira, baina, sasoi batean, beste jabe batzuen zaldi gehiago hezten eta prestatzen nituen. Lasterketa garrantzitsuetan parte hartzen hasi nintzenean, Qatargo Al Shahania Stud talde ezagunarentzako lan egiten zuen entrenatzaile batek begiz jo ninduen eta berarentzat korri egiteko eskatu zidan. Ikulua Madrilen zuenez, hara joateko eskatu zidan, baina ezin nintzen hara joan hemengo guztiak atzean utzita. Hala ere, elkarlanean jarraitu genuen. Taldeko arduradunak zaldiak gure etxera bidaltzen

“Aspaldian ez naiz proba askotan lehiatu, baina parte hartu dudan lasterketetan emaitza onak lortu ditut”

hasi ziren, hemen hezteko eta prestatzeko. Animalia horiek hainbat lasterketa garrantzitsutan parte hartu izan dute gero. 2008an Compiègne-n (Frantzia) jokatu zen Munduko Txapelketa irabazi zuen *Mediatik Larzak* zaldia, esaterako, Al Shahania Studek erosi zuen eta, ondoren, gurera ekarri zuten. Batzuetan, gainera, zaldiak hezteaz eta prestatzeaz gain, euren taldean lehiatzeko aukera ere izan dut eta, horri esker, Qatarrean joateko eskaintza ere egin zidaten.

Eta eskaintza hori onartu al zenuen?

Eskaintza horri ere uko egin nion, lehen aipatutako arrazoi berberengatik. Gaur-gaurkoz, harremana



Zaldizko itziartarra, 24 urteko 'Milora' behorarekin. ERREDAKZIOA

daukat Arabiar Emirerri Batuetako hainbat entrenatzailerekin eta, horri esker, hango behorrak gure etxera ekartzen dituzte kumaldia izateko. Behorrak estaltzeko bi zaldi ditut. *Speed* izeneko hazitarako zaldiaren oinordekoak, adibidez, korrika ari dira Dubain eta Abu Dhabin.

Urteak daramatzazu lasterketen munduan. Zein izan da orain arte lortu duzun markarik onena?

40 eta 60 kilometroko lasterketa asko irabazi ditut zaldi ezberdinekin, baina 80 kilometroko beste hainbat ere. Aspaldian ez naiz proba askotan lehiatu, baina parte hartu dudan lasterketetan emaitza onak lortu ditut. Iaz, esaterako, 40 urtetik gorako kategorian, Espainiako 80 kilometroko txapelketa irabazi nuen *Sas Ali* zaldiarekin. Zaldi berarekin, 60 kilometroko distantzian, Euskadiko Txapelketa ere irabazi nuen. Aurten, besteak beste, Argantzango eta Karrantzako 60 kilometroko lasterketak ere irabazi ditut eta Alacanten urrian egin zen nazioarte mailako 100 kilometroko lasterketan bigarren geratu nintzen.

Beste proba garrantzitsu batzuetan parte hartzeko aukera ere izan duzu, ezta?

Bai. Nazioarte mailan, 120 kilometroko lasterketa askotan ere postu onak lortu izan ditut eta Munduko Txapelketan bi aldiz lehiatzeko aukera ere izan dut. 2008an Compiegne-n jokatu zen txapelketan 120

“Ditudan zaldi eta behor guztiak nireak dira, baina, sasoi batean, beste jabe batzuen zaldi gehiago hezten eta prestatzen nituen”

“Egun osoa zaldi gainean ibili ondoren, eta ahalegin hori guztia aitortu gabe geratu ostean, arantza hori sartuta geratzen zaizu”

kilometroko proban parte hartu nuen, baina, 80. kilometro inguruan behorra ez zegoenez ondo, kaleratu egin gintuzten. Gogoarekin geratu nintzen, eta 2009an beste zaldi batekin eta beste distantzia batean lehiatu nintzen. Ordurako banekien zer zen maila horretako proba batean parte hartzea, eta 160 kilometroko lasterketa egiteko hobeto prestatu nintzen. 13. postuan amaitu nuen eta, munduko onenen artean egonda, gusturageratu nintzen. Urte berean, gainera, Bartzelonan jokatzeko den 200 kilometroko lasterketa garrantzitsuan ere parte hartu nuen. Proba hori bi egunetan egiten da, eta halako proba luze bat egiten nuen lehen aldia izanik, pozik geratu nintzen 14. postuan amaituta.

Pozik al zaude orain arte lortutako emaitzekin? Arantzaren bat geratu al zaizu?

2010. urteko Espainiako 160 kilometroko txapelketan bigarren amaitu nuen, baina zaldia ez zebilen ondo trostan eta, hortaz, kaleratu egin ninduten. Egun osoa zaldi gainean ibili ondoren, eta ahalegin hori guztia aitortu gabe geratu ostean, arantza hori sartuta geratzen zaizu. Hurrengo urtean ere antzeko zerbait gertatu zitzaidan; hirugarren egin nuen, baina azken azterketan zaldiak herren egiten zuen, eta kanporatu egin ninduten. Kirol hau horrelakoa da, lasterketetako atsedendietan egiten diren azterketetako batean albatariak esaten badu animalia ez dagoela ondo, kalera zoaz.

Urtarrilaren 6ra arte zabalik egongo da Bidezko Merkataritza bultzatzeko denda

Aurten ere, iaz egin bezala, Ostolaza eta Portu kaleek bat egiten duten izkinan kokatuta dagoen lokalean zabaldu dute Debako Santa Maria Parrokiako Kooperazio Taldearen ekimenez antolatzen den elkartasun denda. Bertan, askotariko opariak eros daitezke, hala nola hainbat herrialdetako bidezko merkataritzako kooperatibetatik inportatutako txokolatea, kafea, arroza, ezti, pasta, galletak, bonboiak, edariak edota bestelako artisaun produktuak (poltsak, panpinak, kamisetak...).

Errege egunera bitartean, denda egunero egongo da zabalik, ondoko ordutegian: astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara; eta larunbat eta igandeetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:00etara.

Kooperazio Taldeko kideek azaldu dutenez, salmentei esker bilduko duten dirua garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleen bizi-baldintzak hobetzeko



erabiliko dute aurten ere. Zehazki, irabaziak Maliko Togo eskualdean dagoen Saint Paul eskolan garatzen ari diren proiektu bat bultzatzeko baliatuko dituzte. Adierazi dutenez, "artoa, kakahuetea, platanoa eta beste hainbat fruta eta barazki ereiteko baratze bat sortu zuten bertan duela gutxi eta, orain, baratze horren alboan eraikin bat egiteko helburua dute. Beraz, proiektu horretara bideratuko dugu dendari esker lortuko dugun gutzia, baita Debako Udalaren dirulaguntza ere".

Gipuzkoako Elikagai Bankurako bilketa berezian iaz baino diru eta janari gutxiago lortu dutela ohartarazi dute boluntarioek



Beste hainbat herritan bezala, Gabonei begira antolatu ohi den bilketa berezia egin zuten Deban azaroaren 24an eta 25ean. Gutzia zenbatu ondoren, iazko kopurua ez dela gairitu esan dute boluntarioek. "Normalean, zortzi kutxa edo gehiago betetzen ditugu, baina aurten sei besterik ez dira izan; bonu kopurua ere nabarmen jaitsi da. Bizi dugun egoera ekonomikoa ikusita, egia esan, aurreikusitako jaitsiera izan da. Izan ere, gero eta gehiago dira beharra duten familiak". Nolanahi ere, herritarren eskuzabaltasuna eskertu nahi izan dute.

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com

A. Esnaola
P. Echeverria

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808
@pyadent

Hitzak eta ekintzak, euskararen alde eta euskaraz


Azaroaren 24an abiatu eta abenduaren 16an amaitu zen Euskeraz Bagera, Zuhatza Euskara Elkarteak, Debako Udalak eta beste hainbat taldek eta norbanakok antolatutako zikloa. Euskararen aldeko aldarrikapenak egin zituzten herritarrek, eta euskaraz egindako jarduera ugari izan ziren aukeran, askotarikoak gainera. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartzaile guztiei, eta bereziki laguntzaileei. Egindako ekintza guztien lagin bat besterik ez da segidan datorren argazki bilduma.



Osioko basoa ezagutzeko irteera, Diego Mendozak gidatuta.



Mintzodromoa, Agirre jauregiko Ispiluen gelan.



'Euskaraz blai jolasten' ekimena, Zuhatza-Kolore Anitzen eskutik.



Lepo bete zen Kultur Elkarteko aretoa Gariren kontzertuan.



Maialen Solabarrietak gidatutako yoga saioa Ikigai zentroan.



Kalean Kantuz taldeko kideen emanaldia, udaletxe azpian.



Euskararen Nazioarteko Egunean egindako elkarretaratzea.



Debako Kontalariak saio berezia gidatu zuten Ispiluen gelan.



'Erdaldun Berrien Kluba' bakarrizketa, Kultur Elkartean.



Herriko musikariek kontzertua eman zuten Kultur Elkartean.

Komunikazio arloan bailaratzearen aldeko "hautu estrategikoa" sinatu du Zuhatzak



Zuhatza Euskara Elkarteko lehendakari Itziar Arana "hautu estrategikoa" sinatzen. BARREN

Abenduaren 11n, astelehenez, bailarako lau euskara elkartetako lehendakariak batu ziren Elgoibarren —Ermuko Euskal Birusa, Soralezeko Pil-pilean, Elgoibarko Izarra eta Debako Zuhatza—, *Bailaratzearen aldeko hautu estrategikoa* sinatzeko.

Adierazi dutenez, datozen hilabeteetan lau elkarteotako komunikabideek —Ermuko eta Mallabiko *Drogetenitturrik*, Soralezeko *Pil-pileanek*, Elgoibar eta Mendaroko *Barrenek* eta Debako *Berriketanek*— euren arteko elkarlana areagotuko dute eta bailara mailan egituratzeko pausoak emango dituzte, "komunikazio talde sendoagoa" sortzeko. "Uste dugu elkarrekin jardunda gaitasun handiagoa lor dezakegula gure komunikabideak berritzeko, izaera multimedia indartzeko, gure profesionalen formazioa eta lan-baldintzak hobetzeko... Eta,

horrela, herritarrei kazetaritza ekoizpen erakargarriagoak eta kalitatezkoagoak eskaintzeko modua izango dugula", azaldu dute.

Autonomia eta elkarlana

Bi oinarri nagusi zehaztu dituzte bide horretan aurrera egiteko: "Autonomia eta elkarlana". Autonomia, "hedabideek komunikazioan zentratutako egitura eta funtzionamendua beregain izan dezaten", eta, elkarlana, komunikazioa hain azkar aldatzen ari den garaiotan, "bailarako hedabideekin eta ,gainerako euskarazko tokiko hedabideekin elkarlanean jardunda hobeto eta errazago" lan egin ahalko dutela uste dutelako.

Hala, lau euskara elkarteek konpromiso irmoa adierazi dute komunikabideei behar duten "laguntza eta babesa" eskaintzeko,

Debabarreneko lau euskara elkartek, tartean Debako Zuhatzak, tokiko komunikabideak bailara mailan egituratzearen aldeko adierazpena sinatu dute eta, jakinarazi dutenez, urtea hastearekin batera emango dute lehen pauso garrantzitsua, webgune guztiak berritu eta plataforma berean ezarrita. Hala, urtarrilaren 15ean, *berriketan.eus* berritua argitaratuko da.

norabide horretan aurrera egin dezaten.

Erakundeen babesa

Elkarreketako lehendakariak eta herri komunikabideetako lankideak ez ezik, hainbat erakundetako ordezkariak ere parte hartu zuten Elgoibarko agerraldian. Bertan izan ziren, besteak beste, Ermuko, Soralezeko, Elgoibarko, Mendaroko eta Debako udaletako ordezkariak; Tokikomekoak eta Debegesakoak; Gipuzkoako eta Bizkaiko aldun-

Elkarlana areagotuko dute eta bailara mailan egituratzeko pausoak emango dituzte, "komunikazio talde sendoagoa" sortzeko



Elkarteetako eta erakundeetako ordezkariak Elgoibarren egindako agerraldian. BARREN

dietako euskara zuzendariak; eta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria. Guztien artean, erakundeek babes zabala adierazi zioten egindako hautu estrategikoari.

Proiektu irekia

Ekitaldian azaldu zuten, bailaratzearen aldeko hautu estrategikoa hiru urteren ostean iritsi da. Izan ere, eskualdeko komunikabideek 2020an ekin zioten euren arteko elkarlana indartzeko gogoeta prozesuari eta hiru urteotan horretarako aukera teoriko eta praktikoa landu dituzte elkarrekin, Alberto Etxeandia aholkulariaren laguntzarekin.

Oraingoz, hastapeneko prozesu horretan parte hartu duten lau elkarte eta komunikabide erabaki dute bailaratzearen aldeko hautu estrategikoarekin bat egitea, baina, adierazi dutenez, proiektua "irekia"

da eta etorkizunean ere zabalik izango da proiektuarekin bat egin nahi duten eragileek bertan parte hartzeko.

Urtarrilean *berriketan.eus* berritua

2024arekin batera bistaratu da elkarlanaren bidean emandako pauso kualitatibo nagusienetako bat. Izan ere, urtarrilaren 15ean, bailarako lau hedabideek euren webguneak Tokikomen plataforma digital bateratuaren bidez argitaratu dituzte, eskualdeko udal guztiek finantzatu duten inbertsio planari esker. Hori hala, *drogeteniturrei.eus* webgune berria sortuko da Ermuan eta Mallabian; eta Elgoibarko eta Mendaroko *barren.eus* atariak eta Debako *berriketan.eus*-ek itxura berrituko dute.

Atariok punta-puntako diseinu eta funtzionalitateak izango dituzte, bereziki zuzenduak edukiak gailu mugikorretatik kontsumitzeko.

Eskualdeko lau komunikabideek euren webguneak Tokikomen plataforma digital bateratuaren bidez argitaratu dituzte

Horrez gain, hemendik aurrera webgune guztiak edizio gune berberetik gestionatuko dituzte (aurrez plataforma bera ezarria zuen Soraluzeko *Plaentzia.eus* barne) eta, horri esker, asko erraztuko da interes komuneko edukiak trukatzeko komunikabideen artean.

Webguneak berrituta, toki komunikabideek Interneten duten jarduna indartu eta garatu nahi dute, herritarrei eduki gehiago eta modu erakargarriagoan eskaintzeko.

Itziarko eta Debako hamabi odol emaile handi omendu dituzte tokian tokiko elkarteek



Itziarren aitortza jaso zuten emaileak. ITZIARKO ODOLEMAILEAK

Abenduan sartzearekin batera, Itziarko eta Debako Odol Emaileen Elkarteek odol gehien eman duten emaileen "ezinbesteko lana eta konpromisoa" eskertzeko ekitaldiak egin zituzten. Batetik, abenduaren 2an Itziarko Burugorri gainean egin zen ekitaldian, lau laguni banatu zizkieten oroigarriak, beren borondatea eskertzeko. 43 eta 69 odol-ateratze artean eginda, Juan Luis Arratibel (53 donaziorerkin), Nicolasa Garate (69rekin), Maite Salegini (47rekin) eta Jose Ignacio Urrutia (43rekin) omendu zituzten.

Bestetik, Debako udaletxeko areto nagusian abenduaren 3an egin zen ekitaldian, odola hainbatetan eman duten beste zortzi herritarri egin zieten aitortza. Honakoak omendu zituzten: Paul Garcia eta Josu Tapia (odola 25 aldiz ematearren); Ane Miren Egidazu (40 aldiz ematearren); Ander Martinez (50 aldiz ematearren); Miren Itziar Robledo (60 aldiz ematearren) eta Juan Jose Aguirregabiria, Juanan Izaguirre eta Jose Alberto Lazcano (75 aldiz ematearren).

Bi elkarteetako kideek odola ematearen garrantzia azpimarratu zuten ekitaldietan, eta gogorarazi zuten emaile gehiagoren beharra dagoela.

Talde berriaren aurkezpena

Debako ekitaldia, gainera, azken 36 urteotan tokiko ordezkariaren gidaritzan izan duen taldea agurtzeko eta jada haren lekukoa hartuta lanean hasita dagoen taldearen aurkezpena egiteko ere baliatu zuten.

Azken urteotan taldea dinamizatzeaz arduratu direnek esker oneko hitzak izan zituzten hutsik egin gabe odola ematera joaten direnentzat, baita ibilbide honetan bidelagun izan dituztenentzat ere. Besteak beste, udalak emandako babesarekin ere eskertu nahi izan zuten, eta hiru alderdi nagusietako bozeramaileei emandako oroigarria izan zen horren erakusle. Ekitaldia "xumea" izan bazen ere, "polita eta benetan hunkigarria" izan zela adierazi dute talde berriko ordezkariak. "Amaitzeko, Zalburdira joan ginen guztiok elkarrekin zerbait hartzera".



Debako ekitaldian parte hartu zutenak. DEBAKO ODOLEMAILEAK

Halal harategia
Fruta-denda / Supermerkatua

Razan

943 574 710 / 688 749 337
Sokagin, 2. behe. DEBA

Berriketan .eus

albisteak iritziak agenda mediateka

Urtekaria

Urteko gertakari eta albiste nagusien errepasoa
Berriketan aldizkariako lerroburuetan

> Urtarrila



- Alaitz Melgar Agirrek irabazi zuen XVII. Tene Mujika beka.
- Mikel Urdangarinek kontzertua eman zuen Kultur Elkartearen.
- Osasun larrialdiak eragindako bi urteko etenaldiaren ostean, ohiko formatuan ospatu zen Zoro Feria.
- Bi eguneko egitaraua izan zuten Elorriagako San Sebastian jaiek.
- Arrano Elkartearen 40. urtemuga ospatzeko ekintzekin hasi ziren.
- Realak antolatutako haur mailako txapelketa jokatu zuten Errotazarren.

- Debako Udalak 9.217.111 euroko aurrekontu bateratua onartu zuen.
- Herritarren babesa eskatu zuen Kultur Elkarteak, proiektua sendotze aldera.
- Euskadiko Boxeo Federazioan sartu zen Jo Ta Su Boxing elkarteak.

- "Etenaldi mugagabea" iragarri zuen Huntza musika taldeak.
- Tene Mujikaren bizitza eta obra jasotzen dituzten hiru lan aurkeztu zituzten Agirre jauregian.
- Itziarren banatu zen Gure Eskuren Tripontzia zozketaren sari nagusia.

> Otsaila



- Olatu moreak Deba ere hartu zuen Martxoaren 8an.
- HAB Historiaurreko Bailara proiektuaren ibilbidea aurkeztu zuten Geoparkeak eta udalak.
- Ludoteka egiteko prozesua abiatu zuen udalak, saio irekiak antolatuta.

> Martxoa



- Arcadi Oliveres sarietako bat irabazi zuen Julia Ron Sotok.
- Iñaki Goikoetxea Real Unionekeo entrenatzaile izendatu zuten.
- Kardantxulo Eguna ospatu zuten, Itziarko Gazte Asanbladaren ekimenez.

- Mattin Urbietta fisikariaren dibulgazio artikulua, CAF-Elhuyar sarien artean.
- Iñigo Legorburuk eta Rafa Bravok irabazi zuten 'Deba 100 hitzetan' literatur lehiaketa.
- 50 parte hartzaile inguru batu ziren Debako Gaztetxoen hiruko saskibaloi txapelketan.

- Martuteneko IX. Torneo irabazi zuen Amaiak Batek.
- Ruper Ordorika musikariak bi kontzertu eman zituen Deban.
- Okerkale Irratia podcast proiektu berria martxan jarri zuten.
- Debatik 10.600 bat euroko ekarpena egingo zitzaion Errigorari.

> Apirila



> Maiatza



- Amaiak Bateko eta Debasketeko hainbat talde mailaz igo ziren.
- Sinadura bilketa hasi zuten, tenis pista "egokitua eta hobea" eskatzeko.
- Aitzol Arakistain pilotuak hirugarren postua eskuratu zuten Corsica Cup txapelketan.
- Asteburu osoko egitarauarekin ospatu zen Debarren Eguna.
- Deban EH Bilduk irabazi zituen hauteskundeak; Itziarren babes zabala lortu zuen Denon Herriak aurkeztutako alkategaiak.
- Ehundik gora gaztek parte hartu zuten paella txapelketan.

• Alazne Txurruka jeltzalea hautatu zuten Debako alkate; Itziarko Auzo Udaleko aginte makila Arantza Egañak hartu zuen bigarren.

• Kimetz Oñederra hirugarren, Urrezko Aizkolarien finalean.

• Irene Sarrionandiak Camille Extreme osatzea lortu zuen berriz.

• Hamar euskal ekoizpen izan ziren ikusgai 36. Antzerki Astean.

• Ondarearen Europako sari entzutetsuetako bat jaso zuten Deba-Mutriku zubiaren birgaitze lanek.

• Debadaba festa ospatu zen, herriko surf eragileen ekimenez.

> Ekaina



• Futbol profesionaletik erretiratzea erabaki zuen Asier Riesgok.

• Deban eta Itziarren harrera beroa egin zioten Frantziako Tourrari.

• Euskotren 30 minuturo plataformak 5.000 sinaduratik gora batu zituen.

> Uztaila



• Jon Amorrorturen eta Mikel Erkiagaren margolanak ikusgai izan ziren klaustroko erakusketan.

• Egitarau berezia Iturri Ondoan egitasmoaren 10. urtemugan

• Amagoia Arrieta nagusitu zen Espainiako Boccia Txapelketan.

• Itziarren Kopraixak ospatu zituzten hilaren 4tik 9ra bitartean, eta Deban San Roke jaiak izan ziren hilaren 14tik 18ra.

• Egun osoko egitarauarekin ospatu zuten Txosna Batzordearen Eguna.

• Lau emanaldi egin ziren Santa Maria elizan 40. Udako Kontzertuen egitarauaren baitan.

• Debako Caritas elkarteak elkartasan tonbola antolatu zuen, zazpigarren urtez.

• Fernando Fefe Urain: "Bandako kide izateak entseatzeko eta ekintzetan parte hartzeko konpromisoa hartzea dakar".

• Nobull CrossFit Games jokoen podiumean sartu zen Xabi Osa.

> Abuztua



> Iraila



- Balazs Turairen 'Amok' nagusitu zen Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldian.
- Dehako eta Itziarko parroko izateari laga zion Patxi Aizpitartek.
- Bidelagunez inguratuta ospatu zuten *Berriketan* aldizkariak 25. urteurrena.
- Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldeak ekintza bereziak antolatatu zituen 10. urtemuga ospatzeko.
- Arrakastatsua izan zen Marokoko lurrikaran kaltetutakoiei laguntzeko material bilketa.
- Ohiko egitarauaz gozatu zuten herritarrek Euskal Jaian.

- Aldundiak iragarri zuen milioi bat euro baino gehiago inbertituko dituela Itziarko industrialdeko sarbidea hobetzen.
- Beren kargua hartu zuten Itziarko Auzo Udaleko batzarkideek.
- Raul Guerra Garrido beka irabazi zuen Nerea Loiola idazle debarrak.

- Ikasgela publiko berria zabaldu zuten Astillero kalean.
- Arbil elkarteak: "Zahartze aktiboaren aldeko apustuari eutsi nahi diogu, udalaren babespean".
- Europa Nostra 2023 Sariaren plaka oroigarriaren aurkezpen ekitaldia egin zuten zubian.

> Urria



> Azaroa



- Arantza Egaña: "Periak Itziar mapan jartzen laguntzen digu, hemen ere herri bat badela esaten".
- XXIII. urtemuga ospatu zuten Debako Gazte Asanbladak.
- Lehentasunez Jarduteko Eremu izendatu zuten Debabarrena.
- Askotariko ekintzak Itziarren eta Deban, azaroaren 25aren bueltan.
- Egitarau bete-betearekin abiatu zen III. Euskeraz Bagera zikloa.
- Zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba egunera batzeko deia egin zuten geurean ere.

- Gari musikariak kontzertua eman zuten Kultur Elkartean.
- Elkarretaratze jendetsua Deban, Euskararen Nazioarteko Egunean.
- Aitortza egin zieten Debako eta Itziarko odol emailiei.
- 11 ekoizlek parte hartu zuten Gabonetako azoka berezian.

- Jon Artanok Tene Mujika bekaren fruitu den 'Juana' liburua aurkeztu zuten Durangoko Azokan.
- Alaitz Eskudero debarra kide duen Neomak taldeak 2024ko Herri Urrats jaialdirako kanta egingo du.
- Ibilgailuentzako neurri berriak ezarri dituzte Itziarren, eskola birmoldatzeko lanen eraginez.

> Abendua



Abendua / Urtarrila

ABE. 22 (OSTIRALA)

GABONETAKO EUSKAL

DANTZA JAIALDIA

18:00 Andutz Dantza Taldearen eskutik. Itziarko Zabalsoro frontoia.

ABE. 23 (LARUNBATA)

TONCHO NAVARI OMENALDIA

Lagunarteko saskibaloi partidak. Kiroldegia.

ABE. 24 (IGANDEA)

GABON ESKEA ITZIZARREN

10:30 Plazatik hasita, auzoz auzo.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA

12:00 Debako Plaza Zaharra.
18:30 Itziarko goiko eskola.

KALEJIRA

13:30 Aitzuri Abesbatza. Herriko kaleetan.

ELKARTASUN EKIMENA

19:30 Presoekiko elkartasun ekimena. Foruen Plaza.

ABE. 25 (ASTELEHENA)

EMANALDIA

11:00 Aitzuri Abesbatzak Eguberri eguneko mezan abestuko du. Debako eliza.

ABE. 26-27

HAUR PARKEA

11:30-14:00 / 16:30-19:30 Aldats pilotalekua.

ABE. 28 (OSTEGUNA)

HITZALDIA

19:00 2024ko Donbasseko karabana antifaxistaren aurkezpena. Gaztetxea.

ABE. 28 (OSTEGUNA)

KULTUREKIN

18:00 / 20:00 'Mundos para ellos' umorezko ikuskizuna (Oskar Terol). Kultur Elkarte.

ABE. 29 (OSTIRALA)

KULTUREKIN

18:00 / 20:00 Stand Up umorezko bakarrizketak. Kultur Elkarte.

ELKARRETARATZEA

19:30 Euskal preso eta iheslarien giza eskubideen alde. Foruen Plaza.

ABE. 30 (LARUNBATA)

PUZGARRIAK

11:00-13:00 / 15:00-17:00 Itziarko Zabalsoro frontoia.

ABE. 31 (IGANDEA)

SAN SILBESTRE LASTERKETA

11:15 Foruen Plaza.

KONTZERTUA

13:30 Musika Banda. Plaza Zaharra.

URT. 3 (ASTEAZKENA)

BILERA IREKIA

19:00 Errege kabalgata. Udaletxeko areto nagusia.

URT. 5 (OSTIRALA)

II. NESKEN BINAKAKO PALA TXAPELKETA

10:30 2006-2011 bitartean jaiok. Aldats pilotalekua.

ERREGE KABALGATA

18:30 Debako portua (euria egingo balu, Plaza Zaharra).
19:00 Itziarko Bikain jatetxea.

URT. 6 (LARUNBATA)

ZORO FERIA

Goizeko azokaz gain, egitarau berezia egongo da.

URT. 8 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

URT. 11 (OSTEGUNA)

HITZALDIA

18:00 'Osasun mentala eta nerabeak'. Zubi elkartearen eskutik. Kultur Elkarte.

URT. 14 (IGANDEA)

IPIUIN KONTAKETA

17:30 Debako Kontalariaren eskutik. Ispiluen gela.

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

URT. 21 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA

07:30 Eskoriatza-Kurutzebarri-Eskoriatza. Burdin Kurutzen ekimenez.

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

FRAKUSKETAK

'Septariak. Flysch beltzaren nodulu misterioitsuak' Urtarrilaren 31ra arte. Turismo bulegoa.

28. Gabonetako margo eta marrazki erakusketa

Abenduaren 31ra arte. Udaletxeko pleno aretoa. Haitz Haundi elkarte artistikoaren ekimenez.



ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

BURGOA ZUAZO Abenduak 25, 26, 27, 28 eta urtarrilak 12, 13, 14, 22, 23, 24, 25.

ZALDUEGI Urtarrilak 8, 9, 10, 11.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01

BURGOA ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:
ZALDUEGI
Abenduak 23 eta 30 / Urtarrilak 20

BURGOA ZUAZO
Urtarrilak 6 eta 13

Jarrai gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkarte



HURRENGO HITZORDUAK



berriketan.eus/agenda

IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan urtarilaren 17a baino lehen.
berriketan@zuhatza.com
943 19 13 83

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkarte	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kiroldegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Lanbide	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04



Gestilan
asesores aholkulariak

DEBA | Bulego berria
Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

 asesoriagestilan
  gestilan.es
  gestilan@gestilan.es



Uzuri
optika audio



RPS: 183/12

**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92




Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.



EZKER-ESKUIA: 2 Lotola | 3 Septariak | 6 Turmix
EBAZPENA: 7 Aitzuri | 8 Zubeltzu | 10 Maxi | 11 Ekain
Goitik behera: 1 Bastida | 3 Sorozabal
 4 Hipika | 5 Uztapide | 9 Deba

EZKER-ESKUIA

- 2 Azken denbora liburuaren egilearen abizena.
- 3 Flysch beltzean aurkitu daitezkeen harrizko 'nodulu misterioitsuak'.
- 6 Enrique Vitoria punk-rock musikariaren ezizena.
- 7 Abesbatzaren izena.
- 8 Debako Irulearen kondairan azaltzen den dorretxea.
- 10 Lersundi kalearen amaieran ia 40 urtez egon zen taberna.
- 11 Zaldiak irudikatzen dituzten labar-pinturak direla eta mundu mailan ezaguna den kobazuloa.

GOITIK BEHERA

- 1 Hideane eta bere lagunak liburuaren egilearen abizena.
- 3 Debako Martxa sortu zuen konpositorea.
- 4 Iñigo Arrizabalagak praktikatzen duen kirola.
- 5 Bertsolari endoiarra.
- 9 Lasturko harrobitik ateratzen den marmol grisaren izena.

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea, 20820 Deba
 T. 943 191 774
 M. 699 975 206
 info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU
 HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
 943 19 14 47
 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA
 Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
 943 192 057
 20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
 Tlfnoa.: 943 191 970
 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE

SCHOOL OF ENGLISH

Udako egonaldia atzerrian familia eta erresidentzietan

Sokagin kalea 12, DEBA
 648 268 206
 info@english-square.net



Eguberri zoriontsuak eta urte berri on!

Neguaeren bihotzean, Gabonak!
Poza, familia, lagunak...
elkarri opa dizkiogun hitz onak,
irribarre eta zorionak.
Jatorri guztietako pertsonak,
bertako zein atzerriko hiztunak,
bildu eta egin gaitezen euskaldunak!

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
Iifar kalea 12 - Deba - 943 192 236

Urtarrilean matrikulazioaldi berria!



ABENDUAK 24. IGANDEA

12:00 Ongietorria Plaza Zaharrea eta kalejira
Ondoren, salda eta ogitarteko postua Foruen Plazan

*Eguraldi txarra eginenez gero, Aldats pilotalekuan egingo da

Olentzeroren eta
Mari Domingiren
etorrera prestatzeko
lantaldea



YURRITA PRODUKTUEN ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA

Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea,
eta bestelako gourmet produktuak.



Gabonetarako opari kaxak eta eskaintza bereziak!



Zuzeneko salmentaren ohiko ordutegia:
Astelehenetik-ostiralera → 09:00-14:30.
Larunbatak → 10:00-14:00.



Online salmenta:
www.yurritagastronomika.com



sarean edota dendan erosteagatik

% 10eko deskontua

kupoi hau aurkeztuz

CASA

MAULEON

ETXEA

Desde 1867 tik

ZUZENEKO SALMENTAN
50€tik gorako erosketetan,
urtarrilaren 6 arte
erabilgarri

ONLINE SALMENTAN
50€tik gorako erosketetan
ondorengo kupoia sartuz:
GABONAK23